

Deialdiko lanpostuak

Hautapen prozedurak.

Hautapen prozeduretarako deia egiten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko 100 lanpostu betetzeko honako kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa.

Bat etorri abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriarekin eta martxoaren 2ko 20/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba txandako lanpostuen kopurua 17 da.

Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lanpostuak osorik edo partez betetzen ez badira, dagokien kidego, espezialitate eta hizkuntzako lanpostuei gehituko zaizkie, prozedura irekian betetzeko.

Deialdian sartutako lanpostuak honela banatu dira kidegoen, espezialitateen, hizkuntzaren eta prozeduraren arabera:

–Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

KIDEGOA	ESPEZIALITATEA	HIZKUNTZA	TXANDA IREKIA	ERRESERBAKOA Desgaitasuna	LANPOSTU KOP. - GUZTIRA
590	ENPRESEN ADMINISTRAZIOA	Gaztelaniaz	1		1
590	ALEMANA	Gaztelaniaz	1		1
590	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA	Gaztelaniaz	2		2
590	MARRAZKETA	Gaztelaniaz	1		1
590	GORPUTZ HEZKUNTZA	Gaztelaniaz	3		3
590	GORPUTZ HEZKUNTZA	Euskaraz	2		2
590	FILOSOFIA	Euskaraz	1		1
590	FISIKA ETA KIMIKA	Gaztelaniaz	10	1	11
590	FISIKA ETA KIMIKA	Euskaraz	2		2
590	LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEAK	Gaztelaniaz	5	1	6
590	FRANTSESA	Gaztelaniaz	2		2
590	FRANTSESA	Euskaraz	1		1
590	GEOGRAFIA ETA HISTORIA	Gaztelaniaz	8	1	9
590	INFORMATIKA	Gaztelaniaz	3		3

590	INGELES	Gaztelaniaz	6	1	7
590	INGELES	Euskaraz	1		1
590	ESKU-HARTZE SOZIOKOMUNITARIOA	Euskaraz	1		1
590	GAZTELANIA ETA LITERATURA	Gaztelaniaz	7	1	8
590	GAZTELANIA ETA LITERATURA	Euskaraz	4	1	5
590	MATEMATIKA	Gaztelaniaz	5	1	6
590	MATEMATIKA	Euskaraz	1		1
590	MERKATARITZAKO ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA	Gaztelaniaz	1		1
590	IBILGAILUEN MANTENTZE-LANEN ANTOLAKETA ETA PROZESUAK	Euskaraz	1		1
590	FABRIKAZIO MEKANIKOAREN ANTOLAKETA ETA PROIEKTUAK	Gaztelaniaz	4		4
590	SISTEMA ENERGETIKOEN ANTOLAKETA ETA PROIEKTUAK	Gaztelaniaz	1		1
590	HEZKUNTZA ORIENTAZIOA	Gaztelaniaz	1		1
590	HEZKUNTZA ORIENTAZIOA	Euskaraz	1		1
590	ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO PROZESUAK	Gaztelaniaz	1		1
590	KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK	Gaztelaniaz	1		1
590	SISTEMA ELEKTROTEKNIKO ETA AUTOMATIKOAK	Gaztelaniaz	1		1
590	SISTEMA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK	Gaztelaniaz	3		3
590	TEKNOLOGIA	Euskaraz	2		2

–Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoa:

KIDEGOA	ESPEZIALITATEA	HIZKUNTZA	TXANDA IREKIA
593	JAZZ KONTRABAXUA	Gaztelaniaz	1

–Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa:

KIDEGOA	ESPEZIALITATEA	HIZKUNTZA	TXANDA IREKIA
595	DISEINU GRAFIKOA	Gaztelaniaz	1
595	IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK	Gaztelaniaz	1
595	INFORMATIKAKO BALIABIDEAK	Gaztelaniaz	2

–Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa:

KIDEGOA	ESPEZIALITATEA	HIZKUNTZA	TXANDA IREKIA
598	IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	Euskaraz	2
598	MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK	Gaztelaniaz	2

Lanpostuen ezaugarriei dagokienez, aditzera ematen da deialdian eskainitako kidegoen espezialitateetako lanpostuak ibiltariak izan daitezkeela.